

## LANKIDETZA-HITZARMENA, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ETA EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN ARTEAN

## CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA Y EL CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO

Bilbon, sinadura elektronikoaren datan,

En Bilbao, a la fecha de la firma electrónica,

### BILDUTA

### REUNIDOS

Alde batetik, Ainara Herce San Martín andrea, **LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA**ren izenean eta hura ordezkatzuz (Q4800743I; Ercilla kalea 4 – 2., 48009, Bilbo), LEA/AVCko presidentea den aldetik, urriaren 24ko 160/2023 Dekretuaren bidez izendatua (206. zenbakiko EHAA, 206. zk., 2023ko urriaren 27koa).

De una parte, Dña. Ainara Herce San Martín, en nombre y representación de la **AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA** (Q4800743I; C/Ercilla 4 – 2º, 48009, Bilbao), que interviene en su condición de Presidenta de LEA/AVC, nombrada mediante Decreto 160/2023, de 24 de octubre (BOPV nº 206, de 27 de octubre de 2023).

Bestetik, Javier Muñecas Herreras jauna, **EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA**ren izenean eta hura ordezkatzuz (Q9855007B; Kale Nagusia 81 – 7., 48011, Bilbo), CES/EGABeko presidentea den aldetik, Lehendakariaren urriaren 10eko 20/2023 Dekretuaren bidez izendatua (2023ko urriaren 20ko EHAA, 201 zk.).

De otra parte, D. Javier Muñecas Herreras, en nombre y representación del **CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO** (Q9855007B; C/ Gran Vía 81 – 7º, 48011, Bilbao), que interviene en su condición de Presidente del CES/EGAB, nombrado mediante Decreto del Lehendakari 20/2023, de 10 de octubre (BOPV nº 201, de 20 de octubre de 2023).

Bi alderdiek beren karguei dagozkien eginkizunak betetzeko dituzte, eta elkarri aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoa, eta, horretarako, honako hau

Ambas partes actúan en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para suscribir el presente convenio, y al efecto,

### ADIERAZTEN DUTE

### MANIFIESTAN

I.- Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) helburua merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egiten diren jarduera ekonomikoek dagoakenez.

I.- La Autoridad Vasca de la Competencia (LEA/AVC) tiene como finalidad promover, garantizar y mejorar las condiciones de libre competencia y transparencia en el mercado, respecto de las actividades económicas que se ejerzan en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Hala, bere helburuak betetzeko, LEA/AVCk eskumen hauek baliatuko ditu: zehatzekoa, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1., 2. eta 3. artikuluetan ezarritako jokabideei dagokienez (hurrenez hurren, kolusiozko jardunbideak, nagusitasunezko

Así, para el cumplimiento de sus fines, LEA/AVC ejercerá competencias sancionadoras con relación a las conductas previstas en los artículos 1 –prácticas colusorias–, 2 –abuso de posición de dominio– y 3 –prácticas de competencia desleal que, por falsear la libre

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página. Documento hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikokoan** egiaztatzen, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T7TVJ-N95R  
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>  
SINATZAILE / FIRMANTE: JAVIER MUÑECAS HERRERAS | 2026/02/09 13:39:45



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T7VAW-R2CJ  
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>  
SINATZAILE / FIRMANTE: AINARA HERCE SAN MARTIN | 2026/02/12 10:18:06

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página. Documento hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikokoan** egiaztatzen, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

posizioaren abusua ete lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari eragiten dioten lehia desleialeko jardunbideak); sustatzekoa, aurkaratzekoa, irizpen eta kontsultakoa, eta arbitratzekoa.

II.- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (CES/EGAB) Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, interes ekonomiko eta sozialek Euskal Autonomia Erkidegoko politika ekonomikoan eta sozialean parte har debaten.

Bere izaeraren arabera, honako eginkizun hauek dagozkie, besteak beste: Eusko Jaurlaritzak ekonomia- eta gizarte-politikaren arloan dituen arau-proiektuei eta plan orokorrei buruzko nahitaezko txostena egitea, eta gai horri buruzko proposamenak egitea Eusko Jaurlaritzari.

III.- Bi alderdiek adierazi dute lankidetzan aritzeko borondatea dutela, beren jarduerak ahalik eta ondoen garatu eta hobetzeko, beren eskumenen eta helburuen esparruan.

IV.- Lankidetzaren hitzarmen honen bidez bideratuko da, zeina Euskal Sektorre Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen (ESPL) eta Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) arabera sinatuko baita. Aldez aurretik bete dira kasuan kasuko antolamendu-arauetan ezarritako jarduketa formalak, eta, gainera, egiaztatu da Hitzarmena egokia eta beharrezkoa dela eta haren xedea den jardura ez dela kontratuzkoa, bai eta aplikatu beharreko araudian zehaztutako gainerako baldintzak bete direla ere.

Ondorioz, juridikoki bidezkoa eta operatiboki komenigarria denez, alderdiek Hitzarmen hau sinatzea adostu dute. Hona hemen Hitzarmenaren

competencia, afecten el interés público— de la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia; de promoción; de impugnación; de dictamen y consulta, y de arbitraje.

II.- El Consejo Económico y Social Vasco (CES/EGAB) es el ente consultivo del Gobierno vasco y del Parlamento Vasco para hacer efectiva la participación de los distintos intereses económicos y sociales en la política económica y social del País Vasco.

De acuerdo con su naturaleza le corresponden, entre otras funciones, la de informar con carácter preceptivo los proyectos normativos y planes generales del Gobierno Vasco en materia de política económica y social, y la de formular propuestas al Gobierno Vasco sobre dicha materia.

III.- Ambas partes manifiestan su voluntad de cooperar con la finalidad de asegurar el mejor desarrollo y perfeccionamiento de sus actuaciones en el ámbito de sus competencias y objetivos.

IV.- La colaboración se instrumentará a través del presente convenio, suscrito de conformidad con la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco (LSPV), así como con la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (LRJSP). Se han cumplimentado, con carácter previo, las actuaciones formales establecidas en las respectivas normas de organización, y, además, se ha verificado la oportunidad y necesidad del Convenio y el carácter no contractual de la actividad que constituye su objeto, así como el cumplimiento del resto de requisitos determinados por normativa que resulta de aplicación.

En consecuencia, siendo jurídicamente procedente y operativamente conveniente, las partes acuerdan suscribir el presente Convenio, que se regirá por las siguientes

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

## Lehenengoa.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da LEA/AVCren eta CES/EGABren arteko lankidetzaz-esparru egonkor bat ezartzea, harreman- eta partaidetzaz-bideak sustatzeko, beren jardueren elkar ezagutzaz bultzatzeko eta elkarri laguntzaz eta informazioa emateko.

2.- Lankidetzaz honako eremu hauetan gauzatuko da:

- Informazioa trukatzaz.
- Jarduera jakin batzuk egiteko laguntzaz materiala.
- Dibulgazio-ekintzak.
- Bestelako ekintzak.

## Bigarrena.- ALDERDIEN KONPROMISOAK

### 1. Informazioa trukatzaz

Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute beren eskumenak eta eginkizunak betetzeko garrantzitsutzat jo dezaketen informazioa trukatzeko, kasu bakoitzean eska daitekeen konfidentzialtasun-araubidea erabat betez.

### 2. Jarduera jakin batzuk egiteko laguntzaz materiala

Ahal den neurrian eta lan-kargaren eta erabilgarri dauden baliabideen arabera, bi alderdiek konpromisoa hartzen dute elkarri euskarria emateko eta beren eginkizunak betetzen laguntzeko; horretarako, laguntzaz dokumentala eta bibliografikoa emango dute, argitalpenak trukatzeko dituzte eta beren bulegoak eta instalazioak bilera eta topaketetarako baliatuko dituzte, alde zuzenetik eskatuta eta ados jarrita.

## Primera.- OBJETO

El presente convenio tiene por objeto instaurar un marco de colaboración estable entre LEA/AVC y CES/EGAB para promover cauces de relación y participación, impulsar el conocimiento mutuo de sus actividades y prestarse ayuda e información recíprocas.

2.- La colaboración se desplegará en estos ámbitos:

- Intercambio de información.
- Apoyo material en el ejercicio de determinadas actividades.
- Acciones de divulgación.
- Otras acciones.

## Segunda.- COMPROMISOS DE LAS PARTES

### 1. Intercambio de información

Ambas partes se comprometen a intercambiar información que puedan considerar relevante para el ejercicio de sus respectivas competencias y funciones, con absoluta observancia del régimen de confidencialidad que resulte exigible en cada caso.

### 2. Apoyo material en el ejercicio de determinadas actividades

Ambas partes se comprometen, en la medida de lo posible y en función de la carga de trabajo y de los recursos disponibles, a prestarse soporte mutuo y colaborar en el ejercicio de sus respectivas funciones, mediante el apoyo documental y bibliográfico, el intercambio de publicaciones y el aprovechamiento de sus respectivas dependencias e instalaciones para reuniones y encuentros, previa solicitud y de común acuerdo.

### 3. Dibulgazio-ekintzak

Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute adostasunez egokitzat jotzen dituzten dibulgazio-, prestakuntza- edo azterketa-ekintzak antolatze eta gauzatzeko. Zehazki, interes komuneko gaiei buruzko mintegiak, topaketak edo sinposioak egiten laguntzeko konpromisoa hartzen dute, hala nola gaurkotasun sozioekonomikoa, lehiapolitika, erregulazio ekonomikoaren hobekuntza eta merkatu-batasuna.

### 4. Bestelako ekintzak

Bi alderdiek adostu ahal izango dute hitzarmen honen helburuak lortzen lagunduko duten beste jarduerak egiteko lankidetzan aritzea.

## Hirugarrena.- DATU PERTSONALEN BABESA ETA KONFIDENTZIALTASUN-BETEBEHARRA

1.- Alderdiek erabaki dute osorik errespetatzea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, edo Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean datu pertsonalen babesaren arloan aipatutakoa ordeztu, aldatu edo osa dezakeen beste edozein legeria.

Hala, alderdi bakoitza izango da Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz bere gain hartzen dituen betebeharrak betetzeko tratatu behar dituen datu pertsonalen Tratamenduaren Arduraduna.

- a) Alderdiek beste alderdiak lortutako datu pertsonalak tratatu ahal izango dituzte, baldin eta ezinbestekoa bada datuak jasotzen dituen alderdiarentzat –Tratamenduaren Arduraduna den aldetik– bere tratamenduak duen helburua

### 3. Acciones de divulgación

Ambas partes se comprometen a organizar y llevar a cabo cuantas acciones de divulgación, formación o estudio, consideren convenientes de común acuerdo. En concreto, se comprometen a colaborar en la celebración de seminarios, encuentros o simposios sobre temas de interés común como la actualidad socioeconómica, la política de competencia, la mejora de la regulación económica y la unidad de mercado.

### 4. Otras acciones

Ambas partes podrán acordar cooperar en la realización de otras actuaciones que se consideren de interés común y contribuyan a alcanzar los objetivos del presente convenio.

## Tercera.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL Y DEBER DE CONFIDENCIALIDAD

1.- Las partes acuerdan respetar en su integridad el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales o cualquier otra legislación que pueda sustituir, modificar o complementar a la mencionada en materia de protección de datos de carácter personal durante la vigencia del presente Convenio.

Así, cada parte será Responsable del Tratamiento de los datos de carácter personal que deba tratar para el cumplimiento de las obligaciones que, con motivo de la suscripción del presente Convenio, asumen.

- a) Las partes podrán tratar incidentalmente datos de carácter personal obtenidos por la otra parte si resulta imprescindible para el cumplimiento de la finalidad del tratamiento que la parte receptora de los datos tiene encomendada como Responsable del Tratamiento. Deberá

betetzeko. Horren berri eman beharko zaio datu pertsonalen titularrari.

- b) Alderdiek konpromisoa hartzen dute segurtasun-, konfidentzialtasun- eta antolaketa-neurri guztiak aplikatzeko, datu pertsonal horien osotasuna bermatzeko, datuok aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea eragozteko, eta neurri horiek beren zerbitzura dauden langileei eta, hala badagokio, kontratistei betearazteko. Langile horiek, halaber, sekretu- eta konfidentzialtasun-betebeharra izango dute.

2.- Arestian jasotakoa betetzen ez bada, ez-betetzea egin duen alderdiari egokituko zaio ez-betetze horren eraginpean geratu denaren aurrean erantzutea, eta kaltetua kalterik gabe utzi beharko du.

#### **Laugarrena.- HITZARMENAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA**

1.- Hitzarmen honetan adierazitako helburuak garatzen laguntzeko eta betetzen direla ziurtatzeko, alderdiek Jarraipen Batzorde Mistoak sortuko dute.

2.- Batzorde hori gehienez ere lau kidek osatuko dute eta, zehazki, honako hauek osatuko dute:

LEA/AVCren lehendakaria eta idazkari nagusia; horietako bat batzordeburua izango da.

CES/EGABren lehendakaria eta idazkari nagusia; horietako bat idazkaria izango da.

3.- Jarraipen Batzorde Mistoak honako eginkizun hauek izango ditu:

Hitzarmen honetan adierazitako lankidetzeta-baldintzen jarraipena egitea.

Hitzarmen honetako klausulak interpretatzean eta aplikatzean sor daitezkeen zalantzak eta eztabaidak ebaztea.

informarse de ello a la persona titular de los datos de carácter personal.

- b) Las partes se comprometen a aplicar todas las medidas de seguridad, confidencialidad y organizativas que permitan garantizar la integridad de dichos datos personales, impedir su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, así como a hacer cumplir dichas medidas al personal a su servicio y, en su caso, contratistas. Dicho personal estará asimismo sujeto al deber de secreto y confidencialidad.

2.- En caso de incumplimiento de lo anteriormente recogido, corresponderá a la parte incumplidora responder ante quien haya resultado afectado por dicho incumplimiento, debiendo dejarle indemne al respecto.

#### **Cuarta.- SEGUIMIENTO Y CONTROL DEL CONVENIO**

1.- Para facilitar el desarrollo y asegurar el cumplimiento de los fines expresados en el presente convenio, se creará una Comisión Mixta de Seguimiento.

2.- Dicha Comisión estará compuesta por un máximo de cuatro personas miembros y, en concreto, la integrarán las siguientes:

El o la Presidenta y el o la Secretaria General de LEA/AVC, uno o una de las cuales ejercerá la presidencia.

El o la Presidenta y el o la Secretaria General de CES/EGAB, uno o una de las cuales ejercerá la secretaría.

3.- La Comisión Mixta de Seguimiento tendrá las siguientes funciones:

Realizar el seguimiento de los términos de colaboración expresados en el presente Convenio.

Resolver las dudas y controversias que puedan surgir en la interpretación y aplicación de las cláusulas del presente Convenio.

Hitzarmenean hobekuntzak proposatzea, alderdi bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak hobeto kudeatzeko.

Hitzarmena interpretatzea eta, alderdiak ados jarrita, hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten eta hitzarmenean aurreikusi ez diren gai guztiak ebaztea.

4.- Batzordea urtean behin bilduko da ohiko moduan, eta ohiz kanpo, edozein alderdik eskatuta.

5.- Jarraipen Batzorde Mistoaren bilerak honela egingo dira:

Batzordeburuak egingo du bilkuretarako deialdia, bilera egiteko aurreikusitako eguna baino bi (2) egun lehenago gutxienez. Deialdia bilera jaso izana egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baita hartu-agiria duen posta elektronikoa erabiliz ere.

Deialdian aztertuko diren gaien zerrenda jasoko da, bai eta gai horiek behar bezala prestatzeko beharrezkoa den informazioa ere.

Aurrekoa gorabehera, Batzordea balio osoz eratzat joko da, deialdirik egin gabe, kide guztiak bertaratuta edo ordezkaturata, aho batez onartzen badute bilera egitea eta aztertu beharreko gai-zerrendako puntuak.

Batzordearen bilerak idatziz egin ahal izango dira.

Horretarako, Batzordeko idazkariak, batzordeburuaren izenean, posta elektronikoz jakinaraziko die gainerako kideei bileran aztertu beharreko gaien edukia, berariaz adieraziz zer erabaki onartu nahi diren eta zer epe ezarri den bozketak egiteko.

Batzordeko kideek botoa gainerako pertsoneri igorri eman beharko dute beren iritzia, aktan jaso nahi dituzten gogoetekin batera.

Proponer mejoras al Convenio para la mejor gestión de los compromisos asumidos por cada una de las partes.

Interpretar el Convenio y resolver, por común acuerdo de las partes, todas aquellas cuestiones que, relacionadas con el objeto del presente Convenio, no estén previstas en el mismo.

4.- La Comisión se reunirá, de forma ordinaria, una vez al año; y, de forma extraordinaria, en cualquier momento, a solicitud de cualquiera de las partes.

5.- Las reuniones de la Comisión Mixta de Seguimiento se realizarán de la siguiente manera:

La convocatoria de las sesiones se realizará por parte de la persona que ostente la presidencia, con, al menos, dos (2) días de antelación a la fecha prevista para la reunión; la convocatoria podrá realizarse por cualquier medio que permita acreditar su recepción, incluido el correo electrónico con acuse de recibo.

La convocatoria incluirá el orden del día de los asuntos a tratar, así como la información que resulte necesaria para la adecuada preparación de tales asuntos.

Sin perjuicio de lo anterior, la Comisión se entenderá válidamente constituida, sin necesidad de convocatoria, cuando, estando presentes o representadas todas las personas miembros, aceptasen, por unanimidad, la celebración de la reunión y los puntos del orden del día a tratar.

Las reuniones de la Comisión se podrán realizar por el procedimiento escrito.

A tal fin, la persona que ostente la secretaría de la Comisión, en nombre de la persona presidenta, comunicará por correo electrónico al resto el contenido de las cuestiones que se han de tratar en la reunión, con indicación expresa de los acuerdos cuya aprobación se propone y del plazo fijado para la emisión de votaciones.

Las personas miembros de la Comisión deberán pronunciarse mediante la remisión de su voto al resto de personas, junto con las consideraciones que, en su caso, deseen hacer constar en el acta.

Batzordeak prozedura horren bidez egindako bileretan onartutako proposamenak aktan jasoko dira, inguruabar hori adierazita.

Batzordearen bilerak telekonferentziaz egin ahal izango dira; inguruabar hori dagokion aktan jasoko da.

6.- Jarraipen Batzorde Mistoaren bilkurak honako irizpide hauen arabera garatuko dira:

Batzordearen bilerak batzordeburuak kasu bakoitzean erabakitzen duen egoitzan egingo dira, hargatik eragotzi gabe bileretan bideokonferentzia bidez parte hartzeko aukera, betiere bertaratutakoak identifikatzea posible bada.

Batzordeko idazkariak bilera horietan hartutako erabakien akta egingo du, batzordeburuaren oniritziarekin.

Batzordearen erabakiak baliozkoak izateko, beharrezkoa izango da Batzordea behar bezala eratuta egotea. Horretarako, beharrezkoa izango da batzordeburuak eta idazkariak, edo, hala badagokio, haien ordezkoeak, eta, gutxienez, gainerako kideen erdiek bertaratzea, aurrez aurre edo urrutitik.

Erabakiak bertaratutako eta ordezkaturako botoen gehiengo osoz hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, batzordeburuaren botoa erabakigarria izango da.

7.- Batzorde Mistoaren funtzionamendu-araubidea ESPLren 18. artikuluan eta SPAJLren Atariko Tituluaren II. Kapituluaren 3. atalean kide anitzeko organoetarako aurreikusitakoa izango da, hargatik eragotzi gabe Batzorde Mistoak bere barne-funtzionamenduko arauak onartzea. Era berean, batzordeburuari eta idazkariari esleitutako erantzukizunak txandakatzea ere erabaki ahal izango du.

#### **Bosgarrena.- HITZARMENAREN INDARRALDIA**

1.- Hitzarmen honek lau (4) urteko iraupena izango du, eta sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak eta behartuko ditu parte-hartzaileak.

Las propuestas aprobadas en reuniones de la Comisión celebradas por este procedimiento se reflejarán en acta, señalando esta circunstancia.

Las reuniones de la Comisión se podrán celebrar por teleconferencia; se recogerá esta circunstancia en la correspondiente acta.

6.- El desarrollo de las sesiones de la Comisión Mixta de Seguimiento responderá a los criterios señalados a continuación:

Las reuniones de la Comisión se celebrarán en la sede que, en cada caso, determine la presidencia, sin perjuicio de la posibilidad de participar en las reuniones a través de videoconferencia, siempre que sea posible la identificación de las personas asistentes.

La persona que ejerza las funciones de secretaría de la Comisión levantará acta sobre los acuerdos adoptados en tales reuniones, con el visto bueno de la presidencia.

Para que los acuerdos de la Comisión sean válidos, será necesario que ésta se encuentre válidamente constituida, requiriéndose para ello la asistencia, presencial o a distancia, de la presidencia y secretaría o, en su caso, de quienes les suplan, y la de la mitad, al menos, del resto de sus miembros.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría absoluta de votos presentes y representados. En caso de empate, el voto de la persona que ostente la presidencia de la Comisión será dirimente.

7.- El régimen de funcionamiento de la Comisión Mixta será el previsto para los órganos colegiados en el artículo 18 LSPV y en la sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la LRJSP, sin perjuicio de que la Comisión Mixta pueda adoptar sus propias normas de funcionamiento interno. Asimismo, también podrá acordar alternar el ejercicio de las responsabilidades asignadas a la presidencia y a la secretaría de la Comisión.

#### **Quinta.- VIGENCIA DEL CONVENIO**

1.- El presente convenio tendrá una duración de cuatro (4) años y surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde la fecha de su firma.

2.- Hitzarmena luzatzea erabaki ahal izango dute alderdiek, beste lau urterako, aurreikusitako epea amaitu baino lehen edozein unetan, alderdietako batek amaiera iragartzen ez badu, iraungitze-data baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago.

#### **Seigarrena.- HITZARMENA AZKENTZEKO ARRAZIOIAK**

1.- Hitzarmen hau azkendu egingo da suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat gertatzen bada:

Hitzarmenaren indarraldia amaitzea Hitzarmenaren luzapena adostu gabe.

Bi aldeek hala adostuz gero; idatziz egin beharko da.

Alderdietako edozeinek hitzarmena salatzea, berariaz eta modu fede-emailean.

Hitzarmena aurretiaz suntsiarazteko erabakia beste alderdiari jakinarazteko, berariaz salatu beharko da amaiera horrek ondorioak izatea nahi den eguna baino bi (2) hilabete lehenago.

Hitzarmenean jasotako klausulak ez betetzea.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan betegabetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak bere horretan badirau, hura zuzendu zuen alderdiak hitzarmena suntsitutzat joko du, eta beste alderdiari jakinaraziko dio.

Bere helburua betetzeko gerora sortutako ezintasun legal edo materiala.

Epailleak Hitzarmena deuseztatzeko erabakia hartzea.

2.- Hitzarmena partzialki azkentzea onartzen da.

Kasu horretan, alderdiek sinatutako eranskin bat erantsi beharko zaio hitzarmen honi, eta bertan zehaztuko dira

2.- Podrá acordarse su prórroga, por un periodo de otros cuatro años, en cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto, salvo denuncia de cualquiera de las partes, con antelación mínima de dos (2) meses a la fecha de expiración.

#### **Sexta.- CAUSAS DE EXTINCIÓN**

1.- Serán causas de extinción del presente Convenio las siguientes:

El transcurso del plazo de vigencia del Convenio sin haberse acordado la prórroga de este.

Por mutuo acuerdo de las partes, que deberá instrumentarse por escrito.

La denuncia por cualquiera de las partes, que deberá efectuarse de forma expresa y fehaciente.

La comunicación a la otra parte de la decisión de resolución anticipada del Convenio deberá realizarse mediante denuncia expresa con dos (2) meses de antelación a la fecha en la que se pretenda que la referida finalización surta efectos.

El incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo.

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Si, transcurrido el plazo indicado en el requerimiento, persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió entenderá resuelto el Convenio y así se lo hará saber a la otra parte.

La imposibilidad sobrevenida, legal o material, de cumplir su fin.

Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del Convenio.

2.- Se admite la extinción parcial del Convenio.

En dicho supuesto, deberá unirse al presente Convenio una adenda, firmada por las partes, en la que se detallen

indarrean jarraitzen duten hitzarmenaren alderdi guztiak.

3.- Hitzarmena azkentzeak hitzarmena likidatzea ekarriko du, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko; horretarako, SPAJLaren 52. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

#### **Zazpigarrena.- INTERPRETAZIOA ETA ALDAKETA**

1.- Hitzarmen honetatik sortzen diren interpretazio-arazoak, bai eta hitzarmenaren aplikazioaren ondorioz sor daitezkeen eztabaidak ere, hitzarmena sinatzen duten alderdiek ebatziko dituzte, ados jarrita, Jarraipen Batzorde Mistoan.

2.- Hitzarmen honetan edozein aldaketa egiteko, aldez aurretik jakinarazi beharko da eta aldeen oniritzia izan beharko du, eta haien organo eskudunek onartu beharko dute.

Horrela, alderdiek hala eskatzen badute, Hitzarmena aldatu ahal izango da sinatzaileek aho batez hala erabakitzen badute; aldaketa dagokion eranskinean formalizatuko da, eta eranskin hori Hitzarmenari erantsiko zaio.

#### **Zortzigarrena.- PUBLIZITATE AKTIBOA**

1.- Aldeek konpromisoa hartzen dute publizitate aktiboari buruz aplikagarri zaizkien xedapenak betetzeko.

2.- Hitzarmen hau herritarren eskura jarriko da Eusko Jaurlaritzaren Gardentasun Atarian, Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta hura garatzeko gainerako araudian xedatutakoa aplikatuz.

3.- Era berean, Hitzarmena aldean web orrietan ere egongo da eskuragarri, informatzeko, ESPLn xedatutakoaren arabera.

#### **Bederatzigarrena.- ARAUBIDE JURIDIKOA, JURISDIKZIOA ETA FORUA**

1.- Lankidetzaz-hitzarmen hau administratiboa da, eta, beraz, hura interpretatu eta garatzeko, hitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoari jarraituko

todos los aspectos del Convenio que permanecen vigentes.

3.- La extinción del convenio dará lugar a la liquidación de este con el objeto de determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las partes, para lo que se estará a lo dispuesto en el artículo 52 LRJSP.

#### **Séptima.- INTERPRETACIÓN Y MODIFICACIÓN**

1.- Las cuestiones de interpretación que se deriven del presente Convenio, así como las controversias que puedan suscitarse con motivo de su aplicación, se resolverán por las partes firmantes del convenio de mutuo acuerdo, en el seno de la Comisión Mixta de Seguimiento.

2.- Cualquier modificación del presente Convenio deberá comunicarse y contar con el visto bueno previo de las partes, y ser aprobada por los órganos competentes de las mismas.

Así, cuando las partes lo requieran, el Convenio podrá ser modificado mediante acuerdo unánime de las firmantes; la modificación se formalizará en la correspondiente adenda, que se incorporará al Convenio.

#### **Octava.- PUBLICIDAD ACTIVA**

1.- Las partes se comprometen a cumplir las previsiones sobre publicidad activa que les resulten de aplicación.

2.- El presente Convenio será puesto a disposición de la ciudadanía en el Portal de Transparencia del Gobierno Vasco, en aplicación de lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso y Buen Gobierno, y demás normativa de desarrollo de esta.

3.- Asimismo, el Convenio también será accesible en las páginas web de las partes, a efectos informativos, de conformidad con lo previsto en la LSPV.

#### **Novena.- RÉGIMEN JURÍDICO, JURISDICCIÓN Y FUERO**

1.- El presente Convenio de colaboración es de naturaleza administrativa, rigiéndose, en su interpretación y desarrollo, por el ordenamiento jurídico

zaio, ESPLren II Tituluaren IV. Kapituluaren eta SPAJLren Atariko Tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoarekin bat etorritik.

2.- Hitzarmenaren aplikazioan sor daitezkeen interpretazioaren, aldaketaren, suntsiarazpenaren eta ondorioen inguruko auziak alderdien arteko adostasunez konpondu beharko dira, eta, adostasunik ezean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du gai horien gaineko ardura, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoaren arabera.

3.- Hitzarmen honen interpretaziotik eta betearazpenetik eratorritako gatazkak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira, eta alderdi sinatzaileek horren mende jartzen dira espresuki.

#### **Hamargarrena.- EDUKI EKONOMIKORIK EZ IZATEA ETA KUDEAKETARAKO ERAKUNDE PERTSONIFIKATU BAT EZARRI BEHAR EZ IZATEA**

1.- Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz ez da inolako konpromiso ekonomikorik sortuko.

Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz izan daitezkeen gastuak alderdi bakoitzak bere aurrekontu-kredituen kontura ordainduko ditu.

2.- Ez da beharrezkoa izango erakunde pertsonifikaturik ezartzea hartutako konpromisoak kudeatzeko.

Hitzartutakoa behar bezala jasota gera dadin, eta ados daudela adierazteko, alderdiek Hitzarmen hau sinatu dute.

Dña. **Ainara Herce San Martín** andrea

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN LEHENDAKARIA  
*PRESIDENTA DE LA AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA*

aplicable a los convenios, de conformidad con lo dispuesto en el Capítulo IV del Título II de la LSPV y en el Capítulo VI del Título Preliminar de la LRJSP.

2.- Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos que pudieran derivarse de la aplicación de este convenio deberán solventarse de mutuo acuerdo entre las partes y, en defecto de acuerdo, el conocimiento de estas cuestiones corresponderá a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

3.- Los conflictos derivados de la interpretación y ejecución de este Convenio serán competencia del orden jurisdiccional de lo contencioso-administrativo, al que las partes firmantes se someten de manera expresa.

#### **Décima.- AUSENCIA DE CONTENIDO ECONÓMICO E INNECESARIEDAD DE ESTABLECER UNA ORGANIZACIÓN PERSONIFICADA PARA SU GESTIÓN**

1.- La suscripción del presente Convenio no comporta la asunción de compromiso económico alguno.

Los gastos en que puedan incurrir las partes con motivo de la suscripción del presente Convenio serán satisfechos por cada una de ellas con cargo a sus respectivos créditos presupuestarios.

2.- No será necesario establecer una organización personificada para la gestión de los compromisos asumidos.

Para la debida constancia de lo acordado, y, en prueba de su conformidad, las partes suscriben el presente Convenio.

D. **Javier Muñecas Herreras** jauna

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN PRESIDENTEA  
*PRESIDENTE DEL CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO*